

2008

Memoria

Gipuzkoako Gurutze Gorria



Pertsonengandik gero eta hurbilago

Aurkibidea

Aurkezpena	3
Gizarte esku-hartzea eta enplegua	4
Osasuna eta Sorospena	9
Boluntariotza eta prestakuntza	12
Nazioarteko Lankidetzaz	16
Gazteria	18
Gipuzkoako Gurutze Gorria	20
Ekonomia-kudeaketa	25
Kalitatea	27

Aurkezpena



Lagunak:

Dakizuenez, Gurutze Gorria – Ilargi Erdi Gorria Gobernu Kanpoko Erakunde humanitario, neutral, aske, independente eta unibertsala da. 1864an sortu zen, Genevako Hitzarmenean, eta hirutan jaso du Bakearen Nobel Saria.

Betiko lana bazterrean utzi gabe, bestelako lan batzuk ere hartu ditu bidean aurrera egin ahala, eta babesik gabeei eta baztertuei, gerretako biktimei, gosete eta jazarpenaren biktimei, presoei, drogen mendekoei eta abarri laguntzen ere jarduten da orain, inoren sufrimendua arindu nahian, inorekin lerrokatu gabe. Gizakien arteko harremanak bultzatu nahi ditu, elkar ulertuta, hitz eginda, elkarri errespetatuta eta solidaritatea landuta. Printzipio horietan komunikazio emozionalaren premia ere azpimarratzen da, harreman purua, zeinetan garrantzitsuena baiten

hurkoa ulertzeko gai izatea.

170 herrialde baino gehiagotan jarduten duenez, tokian tokiko baldintza sozialetara eta premietara moldatzen du bere lana. Gipuzkoan 1870eko uztailaren 15etik gaude, ia 140 urtez. Gure gizarteaz batera egin dugu aurrera. Eta, hala, betiko zerbitzuak emateaz gain, hau da, sorospena eta larrialdietarako laguntza, kirol-ekintzetako prebentzio zerbitzuak, hondartzak, herriko festak eta abar, bestelakoak ere ematen ditugu orain. Gaur egun, krisia gailentzen ari dela-eta baztertuta geratzeko arriskuan daudenei laguntzen saiatzen ari gara, batez ere; ahalegin handiagoa egiten dugu egoera horretan daudenei kontu egiteko, prestakuntza eta sustapena emateko. Horixe da gure erronka nagusia, eta talde bikaina osatu dugu: beren denbora librearen zati bat eskaintzen duten boluntarioak dauzkagu; bazkideak, ekarpenak eginez baliabideak eskuratzen dizkigutenak eta, azkenik, erabiltzaileak, ekarpenez baliatzen direnak eta gure izanari zentzua ematen diotenak. Gainera, tekniko profesionalak ere kontratatzen ditugu inoiz edo behin, emaitzak hobekitzeko. Hitzarmenen, egitarauen eta dirulaguntzen bidez administrazioarekin ditugun harremanek egiten dute gainerako guztia. Talde horietan guztietan aurrean eta gizartearen aurrean, beharrezkoa da erabateko gardentasuna izatea gure kudeaketan, eta urtero ikuskatzen gaituzte.

Gustura gaude egiten dugun lanarekin, nahikoa gustura, baina halere izugarritzko eremua daukagu oraindik lantzeko, mugarik ez da, beti sortzen direlako erronka eta gorabehera berriak, gero eta konponbide zailagoa dutenak. Oraintxe bertan, inmigrazioagatik eta ganean daukagun depresio ekonomikoa dela-eta, bertakooi ere eragiten diguna, lan handia daukagu, eta denon artean atera behar dugu aurrera. Eskura ditugun baliabideek uzten diguten heinean egingo dugu lan, administrazioaren laguntzaz eta beste GKEekin elkarlanean.

Memoria honetan, 2008an egindakoen berri emango dizugu; hor ikusiko duzu egindako lan eskerga.

Lagundu iezaguzu, eta zu zeu ere erakunde humanitario honen parte izango zara. Behar zaitugu. Bazkideak eta boluntarioak ugaltzeak aparteko errefortzua ekarriko lioke talde honi.

Enrique Samaniego Arrillaga
Gipuzkoako Gurutze Gorriko burua

Gizarte esku-hartzea eta enplegua



Ahulenak ere gizartean txertatzeko egiten dugulan

Ahulenak ere gizartean sartzeko egiten du lan Gurutze Gorriak, bazterketaren dimentsio guztiak ikuspegi batean bilduta. Zenbait programa prestatu ditugu: edadetuentzat, babesik gabe dauden ume eta gazteentzat, besteren laguntzaren mende bizi direnentzat, zailtasun sozialak dituzten familia eta emakumeentzat, etorkin eta errefuxiatuentzat, lanik gabe edo integratzeko arazoekin daudenentzat eta abarrentzat. Izan ere, ahulezian daude horiek guztiak eta laguntza behar dute gizartean ondo txertatzeko. Horrez gain, beste norbaiten laguntzaren mende bizi direnen familiei eta zaintzaileei ere laguntza ematen diegu.

Menpekotasun egoeran bizi diren pertsonak

Gurutze Gorriak proiektu espezifikoak ditu kolektibo ahulenen bizi-kalitatea eta autonomia hobetzeko. Esate baterako, adinekoekin eta ezintasun fisiko eta psikikoak dituztenekin, bakoitzak bere autonomia garatzeko egiten dugu lan, osasunez zahartzen irakasteko proiektuak garatzen ditugu, eta osasuna autogestionatzen ere laguntzen diegu.

Etxeko laguntza osagarriaren bitartez, prebentzio-lana egiten dugu bakanduta gera ez daitezen, gure asmoa baita pertsona horiek ere gizarteko parte izan daitezela. Horretarako, 2008. urtean 141 boluntario izan genituen gurekin elkarlanean, adineko eta ezinduei laguntzeko haien gestioak egiten, paseora joaten, denbora-pasako gauzak egiten eta abar, etxeko laguntza emateaz gain. 825 pertsonak jaso zuten programa honen zerbitzua. Horrez gain, **aisialdiko eta denbora-pasako ekintzak** ere prestatzen ditugu haientzako bereziki, programa sozioedukatibo baten bitartez.

Garraio egokitua ere badaukagu, nahi duenari garraio-zerbitzua emateko, mugikortasun-arazoak dituztenentzako bereziki prestatutako ibilgailuen bidez: eskoletara eramaten ditugu, eguneko zentroetara, aisialdiko zentroetara, ekintza kulturalak egitera eta abar. Zerbitzu horrek AENOREk ematen duen ISO:9001 ziurtagiria lortu du aurten Gipuzkoan.

Buruko gaixotasun kronikoak dituztenentzat eguneko zentro bat daukagu Tolosako egoitzan. Hainbat langintzatan jarduten dira bertan gaixoak, eta ahalik eta autonomia pertsonal handiena lor dezaten prestatzen ditugu.

Lagunduta bainatzeko programa ere badaukagu, zailtasuna daukatenei hondartzetara jaisten laguntzeko eta itsasoan bainatzen laguntzeko. Sorosle adituak dauzkagu aulki anfibioak hartu, eta ezin dutenei laguntzeko. Banakoentzako nahiz taldeentzako ematen dugu zerbitzu hau.

Umeak eta zailtasun sozialak dituzten gazteak

Gurutze Gorriarentzat funtsezkoa da umeak eta babesik gabe eta arriskuan dauden gazteak babestea. Heldurik gabe datozen etorkinei laguntzeko esku-hartze soziala eta hezkuntzakoa daukagu, adinez txikikoak babesteko eta beren eskubideak betetzen direla bermatzeko. 2008. urtean, eta NOKIA SAU fundazioarekin batera, CRoNO proiektua aurrera eramaten jarraitu dugu. Proiektua heldurik gabe datozen etorkinak gizarteratzen jarduten da, hainbat esparrutan eraginez, batez ere, hauetan: hezkuntza eta alfabetizazioa; denbora libreko hezkuntza-tailerrak; eta laguntza indibiduala ume eta gazteen bizimoduan eta migrazioan. Aipatzekoa da, hemen ere, izugarritzko lan eskerga egiten dutela boluntarioek etorkin horiei laguntzen, gizartean sartzeko eta hezkuntza emateko. Gainera, ekaina bitartean, Laguntzako Familia Boluntarioak ere izan ditugu babes-zentroetan bizi ziren gazteak etxean hartzeko prest. Aste-bukaera eta oporraldietan etxe batean egoten dira zentroan egon ordez, eta, hartara, etxeko eta familiako giroa bizitzeko aukera daukate.

Burujabetzeko pisuak izeneko programaren bitartez, bestalde, etxea eta



Garraio bide egokituaren zerbitzuak bereziki prestatuak ibilgailuak dituzten gorpil-alkian dabilzaten edo mugikortasun mugatua duten pertsonak garraiatzeko.

beste norbaitekin bizitzeko aukera ematen diegu gizartetik kanpora geratzeko arriskuan dauden 18 urtetik gorako gazteei. Bizimodu autonomoa izaten hasten dira eta gizartean nahiz lanean sartzen hasteko abiapuntua daukate pisu horietan. Programa hau 1999tik daukagu martxan, eta dagoeneko 6 pisu ditugu neska-mutilentzat, 6 plazakoa bakoitza. Etxean bakarrik bizitzen eta ekonomikoki nahiz emozionalki heldu eta burujabe izaten ikasten dute. Badugu beste proiektu bat ere zailtasun soziala daukaten 16 eta 25 urte bitarteko gazteentzat, gizartean sartzeko laguntzeko, 2004. urtetik. Proiektuaren xedea da gizartean sartzen laguntzea, hezkuntza landuz banan-banan.

Lana eta familia uztartzeko programaren bidez, familia etorkinei laguntzen diegu, batez ere, ume txikiak dituzten amei. Boluntarioen bitartez, gizarte-zerbitzuak eta arreta, prestakuntza eta laguntza emozionala ematen dugu.

Pisuetan laguntzeko boluntarioen programa Gurutze Gorriak Gurutze Gorriarentzat egiten duen programa da. Pisu tutelatuetan errefortzuko lanak, aisialdiko ekintzak, laguntza eta abar egiteko boluntarioak bildu eta prestatzen ditu.

Etorkinak eta errefuxiatuak

Etorkinak eta errefuxiatuak dira gizartetik baztertzeko arrisku handiena daukatenak. Eta horietatik, egoera administrazioa erregulatu gabe daukatenak eta exe-

kutatu ez daitekeen kanporatze-agindua daukatenak dira arrisku handiena, eta babesik gutxiena, daukatenak. Etorkinek, orokorrean, bazterketa jasateko arriskua daukate, lanean zein gizartean, eta, zenbait kasutan, nekeza egiten zaie lanari luzean eustea edo lanean gora egitea.

Hasierako harrera egiteko eta gizartean sartzeko programaren helburu orokorra da harrera integrala ematea etorkinei, hobeto jakin dezagun beren funtsezko premiak zein diren, justu horiek konpontzeko zerbitzura bideratzeko. Proiektu hauek kudeatzen dira hasierako harrerako programatik: harrera-zentro humanitariotara bideratzea; familiak biltzea; borondatez itzultzea, nahi dutenek jaioterrira itzul daitezzen; familiartekoen kontaktua berriz egiteko mezuak eta bilaketak martxan jartzeko; aterpe eta asiloa; hizkuntzak, tailerrak eta integrazio-aula eta helduei laguntzeko zerbitzua.

Egonaldi ertaineko zentroetan, oinarrizko ostatu, janari eta garraioa ematen diegu bestela errekurtsorik ez dutenei, lana eta etxe normala eskuratzeko moduan egon arte. Programa honek 8 urte egin ditu dagoeneko martxan, eta baditugu 10 pisu. Egunean-egunean sortzen diren premietara egokitzen gara, eta osasuneko, hezkuntzako, gertutasuneko, aisialdiko eta bestelako laguntza handitu egiten dugu behar ahala.

Kultura arteko bitartekaritza zerbitzuak laguntza ematen die kultura ezberdineko jendearekin lan egi-

ten duten profesional eta hezitzaileei, ekintza komunitarioko programetan, harrera-planetan, bai eta moldatzeko, lanean gora egiteko eta gizartean integratzeko proiektuetan ere. Programa honen helburua da komunikazioa eta elkar ulertzea hobetzea, kulturen artean sor daitezkeen gatazkak prebenitzea, eta aldean arteko harremanak gidatzea.

Gurutze Gorriak **enplegu-plana** ere garatzen du, gizarteratzeko arazo handienak dituztenei lana aurkitzen laguntzeko. Programa espezifikoak garatzen ditugu, ahulenei egokituak, bakoitzaren gaitasun eta ahalmenen garapenean oinarrituta, lana lortzeko dauzkaten oztopokoak arintzeko apurka. Hortaz, bakoitzari bere ibilbidea prestatzen diogu, prestakuntza, orientazioa, bitartekaritza eta sentsibilizazioa emanaz, bakoitzari bere neurrian. Enplegu-planaren barruan, zenbait proiektu ditugu kide eginda: Red Interlabora, Incorpora eta Sarbideak. Etorkinei, lana lortzeko zailtasunak dituzten emakumei eta espetxe-erregimenean daudenei lana aurkitzen laguntzen diete proiektu horiek.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak

Genero-indarkeriaren aurka borrokatzea, biktimei laguntzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea lehentasunezko kontuak dira Gurutze Gorrian. Iraila arte harrerako pisu bat izan genuen genero-indarkeria jasandakoei aldi baterako aterpea emateko. Arlo guztietan kontu egin genien, beren egoera berriari aurrera egiten laguntzeko, autonomo izateko beharrezko sostengua eman genien, bai eta aholkularitza soziala nahiz legezkoa ere.

Telelaguntza mugikorra zerbitzua: 24 orduko alarma-zerbitzua, gau eta egun, etenik gabe; urrutira kokatzeko zerbitzua (GPS + GSM); baliabideak kudeatu eta aktibatzea; laguntza psikologikoa eta soziala, Arreta Zentroaren bidez, eguneko 24 ordutan, eta Gurutze Gorriko beste zerbitzu batzuetan integratzea.


Komunitatearen mesedetan lana

Askatasuna kentzeko zigorra daukatenei aukera ematen diegu komunitatearen mesedetan lan egiteko, Gurutze Gorriaren bitartez.



2008AN GIZATE ESKU-HARTZEAN ARRETA ESKAINITAKO ERABILTZAILERAK

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
Adineko pertsonak	824	1.761	2.585
Ezintasunaren bat duten pertsonak	617	1.299	1916
Zailtasun sozialak dituzten umeak	236	172	408
Etorkinak	899	396	1.295
Enplegu-plana	291	335	626
Zailtasun sozialak dituzten emakumeak	0	13	13
Komunitatearen mesedetan lana	58	12	70
GUZTIRA	2.925	3.988	6.913



Osasuna eta Sorospena



Den-deneko bizitza, osasuna eta duintasuna babesteko egiten dugu lan

Bizia, osasuna eta duintasuna babesteko egiten dugu lan, batez ere, ahulenak gogoan hartuta, larrialdiak eta krisiak gogorrago eragiten diete-eta. “Gure ekimen humanitarioa erantzun azkar eta argiaren bidez gauzatzea, larrialdian edo krisiak eraginda daudenak babesteko”, horixe da gure erronka nagusietako bat. Aurten, horretarako egin ditugu ekintza jakin batzuk, eta larrialdietan esku-hartzeak ugaritu egin ditugu.

Larrialdietarako osasun-garraioko sarea (LOGS)

Eusko Jaurlaritzaren sarearen barruan ematen dugu zerbitzu hau, hortaz, anbulantzia guztiak, baita gu-reak ere, SOS DEIAK 112 zerbitzuaren koordinaziopean daude, 24 orduz, 365 egunez. 5 postu ditugu sarean, Gipuzkoako bost batzarren egoitzatan: Hondarribia, Donostia, Tolosa, Elgoibar eta Deba Garaia (San Prudentzio). 2008. urtean, 11.784 laguni eman zioten laguntza larrialdiko irteeretan.



Prebentzio-zerbitzuak

Giza baliabideak eta materialak ematen ditugu osasunez eta gizartean ondo egoteko laguntza behar bezala emateko, eta herritarren segurtasunari buruz eta babes zibilarri buruz ateratzen diren politika publikoekin irmo inplikaturik gaude. Horretarako, hauek denak dauzkagu Gipuzkoan: ospitale-kamioi 1; osasun-zaintza ematek 2 karpa; 27 anbulantzia; garraioko 44 ibilgailu; mendiko 10 ibilgailu eta 4 quad. 2008. urtean, prebentzioko 1.344 zerbitzu egin genituen kirol-ekintzetan, kultura-ekintzetan, herriko festetan, kontzertuetan... Bat aipatzekotan, Behobia – San Sebastian lasterketa herrikoia aipatu behar da inondik ere, izugarritzko garrantzia duelako, eta beste inon ez bezalako zerbitzua ematen dugulako: 27 anbulantzia, ospitale-kamioi bat, 30 osasun-postu, 7 mendiko

ibilgailu eta 7 osasun-karpa. Prebentzio zerbitzu honetan 215 boluntariok parte-hartu zuten.

Esku-hartzea larrialdietan

Gero eta sendoago dira honelako esku-hartzeak, eta Gurutze Gorriak badu eredu bat bere egin duena: **ERIE (Larrialdietan Berehala Erantzuteko Taldeak)**. Behar bezala prestatutako boluntarioak ditugu, bene-benetako espezialistak, proiektu honetan lanean; eta erantzun azkarra eta argia emateko beharrezko disponibilitatea bermatzen digu horrek. Gaur egun, Donostia, Hondarribi, Lasarte-Oria, Beasain, Deba Garaia, Tolosa eta Deba-Mutriku batzarretako boluntarioak dauzkagu ERIE horietan lanean. Biktimei osasun-laguntza emateaz gain, galdutako edo desagertutako pertsonak bilatu eta aurkitzen jarduten dira talde hauek, baita gorpuzkinak errekuperatzen ere, lehorrean nahiz itsasoan. Gainera, **esku-hartze psikosozialean espezializatutako ERIE** bat ere badugu, estatu osoan lan asko egiten duena: katastrofeak non gertatu, hara joaten dira biktimen senideei eta lagunei kontu egitera.

Hondartzak

2008an, Hondarribia, Zarautz, Donostia, Getaria eta Debako hondartzatan egon gara. Egunero-egunero hondartzen egoerari buruz eta arriskuei buruzko informazioa eman diegu komunikabideei, SOS DEIAK zerbitzuari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari. Banderak jartzen ditugu, bainatzen direnei kontu egiten diegu, galdutako umeak aurkitzen ditugu, arriskuen berri ematen dugu eta, jakina, erreskateak egiten ditugu. Hori guztia egin ahal izateko, begiratzeko talaiak, botikinak, ontziak, uretako motoak eta desfibriladoreak dauzkagu, besteak beste. Hondartza-sasoian 5.000 laguni eman genien sorospena.

Itsas salbamendua

SASEMAR (Sociedad Estatal de Salvamento y Seguridad Marítima) delako elkartearekin bat, gure kostaldeko itsasoa zaintzen dugu 12 miliatara ere. Ontziak bilatu eta aurkitzen ditugu, erreskatea egin eta eriak sendatu, ontziak atoiari eraman, laguntza teknikoa eman eta abar. Horrez gain, kutsaduraren kontrako lanetan ere jarduten gara. Gure baseak berak eta ontzietan, pantalantan eta motorretan behar dugun guztia (urpeko arropa eta abar), hori guztia, Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzak ematen

digu subentzionatuta. B mailako ontziak maneiatzeko kurtsoak ematen ditugu Getariako basean, eta erreskaterako uretako motoen kurtsoak Donostian. Horrez gain, Espainia guztiko Gurutze Gorriko baseetan ere ematen ditugu ikastaroak, baita su-hiltzaileei ere eta abar. Ikastaro horiek Gurutze Gorriko boluntarioek ematen dituzte. Are gehiago, gure lau basetan (Hondarribia, Pasaia, Donostia eta Getarian), soil-soilik boluntarioek egiten dute lan. 2008. urtean 113 irteera izan genituen: ontziak atoian eraman, salbamendua eta laguntza teknikoak egin. 102 pertsona erreskaturatu genituen.

Osasuna zaintzen dugu

2008an, **istripuak saihesteko kanpaina** basikoak ere egin ditugu: -“Udan ere maite ezazu zure burua”.- “Errepidean ere maite ezazu zure burua”.- **Osasuna zaintzen** ere jardun gara: -“Malaria mugarik gabeko gaixotasuna”. -“Prebenitzea bizitzea da” -“Lehen sorospeneko tailerrak ikastetxeetan”.



2008AN LAGUNDUTAKO ERABILTZAILAEK ETA BALIABIDEAK

Programak	Lagundutako erabiltzaileak
LOGS	11.784
Prebentzio-zerbitzuak	1.164
Hondartzak	5.035
Itsas salbamendua	102
Guztira	18.085

Baliabide motak	Unitateak
Lehen laguntza baseak	10
Itsas salbamendu baseak	4
Anbulantziak	27
Larrialdietarako beste ibilgailuak	54
AB mailako ontziak	1
B mailako ontziak	6
C maila aurreratuko ontziak	5
C mailako ontziak	3
Erreskateko ur-motorrak	5
Guztira	115

Boluntariotza eta prestakuntza



Gure xedea da boluntariotzaren bidez hiritarren parte-hartzea sustatzea

Boluntario-lana da gure erakundearen funtsezko printzipioetako bat, eta horren bitartez lantzen dugu herritarren parte-hartze solidarioa. Etengabe behar dugu boluntarioen lana: boluntario konprometitu, gai, motibatu, parte-hartzaile eta prestuak behar ditugu. Azkeneko urteetan, giza esku-hartzeko proiektuetan boluntario zenbakia gehitu da.

Azkeneko urteotan boluntarioak hobeto kudeatzen saiatu gara, kalitate-sistema aplikatzen ari gara gure batzar-sare osoak metodologia bera erabil dezan. Sistema honen xedea da ahalik eta ondoen kudeatzea boluntario izan nahi dutenen lana, bai eta, jakina, dagoeneko boluntario direnena ere.

Honako esparruetan dauzkagu boluntario gehien lanean: Laguntza eta larrialdiak; esku-hartze soziala; Gurutze Gorria –gazteak-; boluntarioak eta parte-hartzea, antolatzea eta kudeatze-lana. Boluntariotan ia pareko daude gizonak eta emakumeak, apurtxo bat gehiago dira gizonak. 2008an, gora egin du emakumezkoen proportzioak. Ia gehienak 21-40 urte bitarteko gazteak dira.

Jabetuarazi eta erakartzea

2008. urtean, hainbat kanpaina egin ditugu boluntarioak gure lanarekin jabetzeko eta gurera ekartzeko, komunikabideen bitartez eta kalez kale. Horri esker beste 220 boluntario dauzkagu orain, gure probintziako 16 herri-batzarretan.

Parte-hartzea

Boluntario bakoitzaren profila prestatzen da estreina eta, ondoren, ekintzaren bat eskaintzen zaio, gure ustez beretzat gustuko izango dena. Lanak berak, ikastaroak, topaketa eta egindako lanaren errekonozimenduko jardunaldiak oso lagungarri izaten dira boluntarioak erakundearekin identifikatzeko, eta are gehiago inplikatzeko.

2008an Deba Garaiko batzar lokalak bere 25. urteurrena ospatu zuen, boluntariotzari zuzendutako zenbait jarduera antolatuz. Besteak beste, urtea amaitzeko probintzi osoko boluntarioekin bazkari/elkargune bat ospatu zen Arantzazun.

Komunitatearen sustatzailea eta portal solidarioa

Programa honek boluntarioekin lan egiten du. Helburua boluntarioek auzoko beharrak identifikatzea da, beraien etxebizitzatik hasita. Honela, Gurutze Gorria pertsonengandik gero eta hurbilago dago.

Beste erakunde batzuekiko koordinazioa

Boluntarioak dauzkaten elkarleen sarean –Sareginez sarean– parte hartzen jarraitu dugu 2008. urtean ere. Batzorde Iraunkorrean eta bere lan-talde batean baino gehiagotan hartu dugu parte. Benetan sinistuta gaude oso-oso garrantzitsua dela boluntarioen lanean oinarrituta funtzionatzen duten gainerako elkarrekin elkarlanean aritzea.

2008an ikastaro gehiago eta bariatuagoak eman ditugu

Gurutze Gorriaren ikastaro eskaintza gure boluntariotzari eta edozein herritarrei zuzenduta dago. Urte honetan zehar, hezkuntza-material berria landu dugu eta lehen sorospentako ikastaro berezituak eman ditugu: haurrei laguntzekoak, edadetuei laguntzekoak, kiroletan aplikatzekoak, mendian aplikatzekoak eta abar.

Bi alor nagusitan oinarritzen da Gurutze Gorriaren prestakuntza:

Barrurako prestakuntza. Boluntario eta soldatapekoentzat. Larrialdietan nola esku hartu erakusteko ematen da prestakuntza hori, eta, orokorrean, gizarte-arloko kontutan laguntza ematen erakusteko. Horrez gain, erakundea bera garatzea ere bada prestakuntza modu honen helburua, kudeatzeko, antolatze eta zuzendaritza-laneko sistemak are eraginkorragoak izan daitezen. Ikastaro hauek beti lortzen dute boluntarioak gehiago inplikatzeko, eta zerbaiten parte direla sentiaraztea.


Kanporako prestakuntza. Erabiltzaileentzat eta edozein herritarrentzat. Gizartean ondo txertatzeko eta parte hartzeko eskolak ematen dira, baztertuta geratzeko arriskuan daudenen premietara bereziki egokituta; hainbat gai eta eduki lantzen dira, hortaz, erabiltzaileen behar pertsonala eta koiunturala kontuan hartzen dira. Hezkuntza formalari lotu gabeko hezkuntza, haurrentzako edo gazteentzako prestakuntza, enplegua lortzeko prestakuntza, ohitura osasungarriari buruzko ikastaroak... Prestakuntza edozein herritarrentzat: osasuna, lehen sorospena, istripuen prebentzioa, giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa. Horrez gain, talde, instituzio, enpresa eta erakunde publikoei ere ematen dizkiegu prestakuntza-eskolak.

2008an 3500 pertson inguruk Gurutze Gorriko prestakuntza eskaintzan parte-hartu zuten. Hauetatik gehienek lehen sorospen ikastaroa egin zuten.



2008KO PRESTAKUNTZA DATUAK

Eskainitako ikastaro kopurua	438
Prestaturiko boluntario kopurua	576
Prestakuntza burutu duten batzar lokalak	14
Irakasle kopurua	88
Ikasle kopurua	3.863

Ikasle kopuruen bilakaera

Nazioarteko Lankidetzaz



Gure helburua: komunitate ahulen autonomia sustatu

Beste herrialde batzuetako banako nahiz taldeek gaitasuna luzean garatzea nahi du Gurutze Gorriak, horixe du asmoetako bat. Nazioarteko Lankidetzan egiten duen lan hori ezinezkoa zatekeen larrialdietan nahiz komunitate ahulak garatzeko proiektuetan lan egiten duten banakoen eta erakundeen laguntza eta konplizitaterik gabe.

Garapenerako proiektuak

Afrika, Latinoamerika, Europa eta Asiako komunitate ahulen garapen ekonomiko eta soziala bultzatzen saiatzen da Gipuzkoako Gurutze Gorria. Hauexek dira, besteak beste, 2008an gauzatutako proiektuak:

FILIPINAK:

Egitasmoa: Komunitateen gaitasunak landu eta sendotzea, osasunaren lehen arreta hobetzeko eta hondamendien gestioa hobetzeko Garchitorena eta Lagonoy herrietan (Camarines Sur).

Finantzatzen laguntzaile: Zumarragako Udala

GUATEMALA:

Egitasmoa: Guatemalako komunitateetako emakume indigena eta ladinoen kontrako indarkeriaren eta bazterketaren aurkako prebentzioa.

Egitasmoa: Guatemalako Ixtahuacan probintziako Santa Catarina komunitateko emakume indigenek egindako ehungintza artisaua merkaturatzeko laguntza.

Finantzatzen laguntzaile: Eibarko Udala

PERU:

Egitasmoa: Bigarren hezkuntzako Abraham Valdelomar eskola konpondu eta egokitzea (Acomayo kokalekua, Peru).

Finantzatzen laguntzaile: Oñatiko Udala

BOSNIA-HERZEGOVINA:

Egitasmoa: Gorazde-n bakea eraikitzea, bertako eta inguruko ume eta gazteei aniztasun etnikoa eta kultura errespetatzen erakutsiz.

Finantzatzen laguntzaile: Donostiako Udala

EKIALDEKO AFRIKA – BURUNDI:

Egitasmoa: Cankuzo-ko komunako herri ahulenen egoera sozio-ekonomikoa hobetzeko laguntza ematea.

Finantzatzen laguntzaile: Irungo Udala

KENIA:

Egitasmoa: Machakos barrutiko komunitateak aurrera bidean jartzea.

Finantzatzailea: Gipuzkoako Gurutze Gorriko funtsa

ETIOPIA:

Egitasmoa: Etiopiako Gurutze Gorriaren lan-ahalmena indartzea.

Finantzatzailea: Gipuzkoako Gurutze Gorriko funtsa

INDIA:

Egitasmoa: Tamil Nadu estatuko East Godavari eta Srikulam barrutietan tsunamiak kaltetutako komunitateei beren onera etortzen laguntzea.

Finantzatzen laguntzaile: Irungo Udala

Gizabidezko laguntza

Gainera, beste herrialderen batean hondamendiren bat edo larrialdiren bat gertatu izan denean, Gipuzkoan partikularrek nahiz erakundeek emandako guztia kanalizatu dugu, eta, hala, gai izan gara gizabidezko 11 laguntza bideratzeko; eta urakan, lurrikara, uholdeetan, bai eta kolera epidemia batean ere, Zimbawen, laguntza eman dugu. 2008an hainbat lekutan izan diren larrialdietan, han izan da Gurutze Gorria.

Gazteria



Gurutze Gorriaren gazteria sailak ume eta gazte-entzako ekintza bereziak egiten ditu, beren erabateko garapena bultzatzeko

2008. urtean, umeen bizi-kalitatea hobetzen saiatu gara, bai eta Gurutze Gorriaren gazteria sailean, zuzenean nahiz zeharka, parte hartu duten gazteena ere. Sail hau, bere gehiengoan, naziotasun ezberdinetako biztanleri ahulak osatzen du, besteak beste, argentinar, txinatar, peruar, marokoar eta mongoliar gazteriaz osaturik dago. Prestakuntza-lanean, Gazteen Gurutze Gorriak beti erreparatzen dio bereziki balioak transmititzeari eta balioetan oinarritutako hezkuntza emateari, asko kezkatzen da ohitura onak hartu beharra zabalitzen, eta ardura berezia hartzen du pertsonen erabateko integrazioa bultzatzen.

Gazteen Gurutze Gorria Gurutze Gorriaren gazte-saila da, eta boluntario gazteek osatzen dute, 16-30 urte bitarteko gazteek. Ume eta gazte ahulenei laguntzea du zeregina, nagusiki, GGG sailak. Horretarako, beren erabateko garapena eta autonomia bultzatzen ditu, hezkuntzaren, parte-hartzearen eta esku-hartze sozialaren bidez.

Gipuzkoako GGG 333 gazte boluntariok osatzen dute. 108 neska-mutil dira bazkide, alegia, ekintza eta abarretan parte hartzen dutenak. Horrez gain, beste edozein ume eta gazteentzako ekintzak prestatzen ditu. Guztira, 2572 lagunek gozatu zituzten GGGren programak.

Gipuzkoako Gazteen Gurutze Gorriaren funtsezko ekintza bat udako kanpamendua da. Kanpamendu hau azkeneko lau urteetan aurrera eraman da. Bertan 50 haur, 12 hezitzaile eta sukaldari batek parte hartzen dute.

Ekintza asko egin ditugu baina bat aipatzekotan, "Jostailuak hezitzeko" kanpaina nabarmendu behar litzateke bereziki. Kanpaina honen helburu nagusia izan da herritar guztiak jabetu daitezela kontsumitu, arduraz kontsumitu behar dela alde guztietatik. Gerra edota sexista ez diren jostailu hezitzaileak era-

biliz gero, elkarlana, berdintasuna, solidaritatea eta errespetua bultzatuko ditugu, umeen gaitasun psikomotriz eta kognitiboa landu ez ezik.

Kanpaina honek bi fase izan zituen. Lehenengoan, jostailuak aukeratu eta bildu genituen eta, bigarrenengoan, jostailuak banatu eta guraso nahiz herritarrei kontsumo arduratsuaren balioak zein diren erakutsi genien.

2008. urtean, 254 familia ingurutara heldu ginen kanpaina honen bidez, eta 279 neska-mutilek jaso zituzten jostailuak. Guztira, 1000 jostailu banatu genituen, ez gerrakoak eta ez sexistak; aurreko urtearen aldean, gora egin dute datuok.

Gure helburua da sentzibilizazioa, prebentzioa, hezkuntza, parte-hartzea eta esku-hartzea bultzatzea arriskuan edo gizartetik baztertuta daudenen artean. Osasuna bultzatzeko eta hezteko programaren barruan, gaixotasunak prebenitzeko egiten dugu lana, esaterako, GIB/SIDA prebenitzeko. Horregatik, abenduaren 1ean, HIESaren kontrako mundu mailako eguna izaki, jabetzeko eta prebenitzeko zenbait ekintza izan genituen: 1600 gazte ingururi informazioa banatu genien Donostiako unibertsitate-kanpusean eta diskoteka batzuetan.



Gipuzkoako Gurutze Gorria

Bulego probintziala

Ategorrieta Etorbidea, 10
20013 Donostia-San Sebastián
Tel: 943 22 22 22 / Fax: 943 32 65 19

Zarategui Ibilbidea, 72
20015 Donostia-San Sebastián
Tel: 943 32 77 95 / Fax: 943 32 65 19

Itsas salbamendua
Muelle s/n
20003 Donostia-San Sebastián
Tel: 943 43 15 07

Presidentea: Enrique Samaniego Arrillaga

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, LOGS, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, garraio egokitua, etorkinen hasierako harrera eta gizarteratzea, prestakuntza, enplegu-tailerra, nazioarteko lankidetzak, Komunitatearen mesedetan lana, etxeko laguntza osagarria, gazteria, enplegu-plana, Komunitatearen sustatzailea eta portal solidarioa, itsas salbamendua, hondartzetako sorospena, hondartzetan lagundutako bainua.

Deba Garaia

Elorregui Auzoa z/g
20560 Oñati
Tel: 943 76 55 76 / Fax: 943 76 08 12

Presidentea: Clemente Domingo Malvadi

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, LOGS, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, garraio egokitua, nazioarteko lankidetzak, Komunitatearen mesedetan lana, prestakuntza eta gazteria.

Andoain

Plazaola, 2 (egoitza). 4 posta kutsatila
Paseo Txistoki (postua)

20140 Andoain
Tel: 943 59 44 77

Presidentea: Pedro Unanue Orcoyen

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, garraio egokitua eta Komunitatearen mesedetan lana.

Azkoitia

Herriko Enparantza (egoitza). 4 posta kutsatila
Alcibar auzoa (postua)
20720 Azkoitia
Tel: 943 85 32 97

Presidentea: Aitor Errazu Uría

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, garraio egokitua, prestakuntza, Komunitatearen mesedetan lana eta igerilekutako sorospena.

Beasain

Urbialde Plaza,5-6 (egoitza)
Ittola industrialdea, pab. B-7(postua)
20200 Beasain
Tel: 943 16 21 50 / Fax: 943 16 15 16

Presidentea: José M. Baztarrika Ugartemendia

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, asteburuko LOGS, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, garraio egokitua, etorkinen hasierako harrera eta gizarteratzea, prestakuntza, enplegu-tailerra, nazioarteko lankidetzak, Komunitatearen mesedetan lana, gazteria eta enplegu-plana.

Deba

Calbeton Etorbidea
20820 Deba
Tel: 943 19 10 32 / Fax: 943 19 18 48

Presidentea: M.^a Jesús Urgell Ubau

Jarduera nabarmenak: Lur eta uretako prebentzio-zerbitzuak, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, prestakuntza, Komunitatearen mesedetan lana, hondartzetako sorospena eta hondartzetan lagundutako bainua.

Donostia

Ategorrieta Etorbidea, 10 - behea
20013 Donostia
Tel: 943 32 09 89 / Fax: 943 32 10 55

Anbulantzi postua
Tolosa Etorbidea, 89
20018 Donostia

Presidentea: Enrique Samaniego Arrillaga

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, LOGS, larrialdiak, Komunitatearen mesedetan lana eta gazteria.

Eibar-Ermua

A-8 autopista ordainlekua
48260 Ermua
Tel: 943 17 62 48 / Fax: 943 17 17 17

Presidentea: Pedro Perez Fernández

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, garraio egokitua, enplegu-plana, etorkinen hasierako harrera eta gizarteratzea, Komunitatearen mesedetan lana, prestakuntza eta gazteria.

Elgoibar

Pl. Padre Aguirre, 3
20870 Elgoibar
Tel: 943 74 38 64 / Fax: 943 74 42 74

Presidentea: Txomin Zabaleta Aranberri

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, LOGS, larrialdiak, garraio egokitua, etxeko laguntza osagarria, Komunitatearen sustatzaileria eta portal solidarioa, prestakuntza eta gazteria.

Hondarribia

Molla Ibilbidea, 7
20280 Hondarribia
Tel: 943 64 17 27 / Fax: 943 64 59 46

Presidentea: Iñaki Sagarzazu Othaitz

Jarduera nabarmenak: Lur eta uretako prebentzio-zerbitzuak, LOGS, larrialdiak, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, itsas salbamendua, hondartzetako sorospena, hondartzetan lagundutako bainua eta prestakuntza.

Irun

Victoriano Juaristi, 8 – 568 posta kutsatila
20304 Irun
Tel: 943 62 11 62 / Fax: 943 62 90 92

Presidentea: David Martín Alli

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, garraio egokitua, etorkinen hasierako harrera eta gizarteratzea, prestakuntza, gizarte laguntzak, Komunitatearen mesedetan lana eta enplegu-plana.

Lasarte

Adarra, 1 behea
20160 Lasarte
Tel: 943 10 30 22 / Fax: 943 55 22 13

Presidentea: José David Muñoz González

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, garraio egokitua, prestakuntza eta gazteria.

Pasaia

Portua z/g. 87 posta kutsatila
20110 Pasaia
Tel: 943 35 41 51 / Fax: 943 39 08 81

Presidentea: Garbiñe García Torrado

Jarduera nabarmenak: Uretako prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, itsas salbamendua eta prestakuntza.

Errenteria

San Sebastián,3
20100 Errenteria
Tel: 943 34 02 04 / Fax: 943 34 02 04

Presidentea: M^a José Martínez Delgado

Jarduera nabarmenak: Komunitatearen sustatzailea eta portal solidarioa, lurreko prebentzio-zerbitzuak, Komunitatearen mesedetan lana eta prestakuntza.

Tolosa

Aita Larramendi – Villa Arkaute
20400 Tolosa

Tel: 943 67 48 88 / Fax: 943 67 52 30

Presidentea: Asier Peñagarikano Zubeldia

Jarduera nabarmenak: Gaixotasun mentalen eguneko zentrua, LOGS, lur eta uretako prebentzio-zerbitzuak, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, prestakuntza, Komunitatearen mesedetan lana eta etxe-ko laguntza osagarria.

Urretxu

Labeaga, 41

20700 Urretxu

Tel: 943 72 53 64 / Fax: 943 72 57 09

Presidentea: Tomás Landa Gámiz

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, garraio egokitua, Komunitatearen mesedetan lana, prestakuntza eta gazteria.

Zarautz

Nafarroa kalea, 23

20800 Zarautz

Tel: 943 83 18 63 / Fax: 943 83 53 08

Presidentea: Félix Zubia Olaskoaga

Jarduera nabarmenak: Lur eta uretako prebentzio-zerbitzuak, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, garraio egokitua, prestakuntza, Komunitatearen mesedetan lana, itsas salbamendua, hondartzetako eta igerilekutako sorospena, hondartzetan lagundutako bainua eta gizarte laguntzak.

ESSMA - Getaria

Itsas salbamenduko eskola

B mailako ontzien erabilerako kurtsoak

Portu kalea

20808 Getaria


Tel: 943 14 02 51



Ekonomia-kudeaketa

2008KO JARDUERAREN GASTUAK

JARDUERA	GASTUA	%
Gazteria	36.687,26 €	0,45%
Boluntariotza eta Prestakuntza	1.144.176,91 €	14,09%
Gizarte esku-hartzea	2.718.748,65 €	33,48%
Osasuna eta Sorospena	2.619.878,52 €	32,27%
Administrazioa - Kudeaketa	654.997,33 €	8,07%
Konponketa eta kontserbazioa	357.183,78 €	4,40%
Nazioarteko lankidetzaz, solidaritate-funtsa eta besteak	520.519,76 €	7,24%
GUZTIRA	8.119.810,67 €	100,00%



2008KO FINANTZIAZIO-ITURRIAK

	ZENBATEKOA	%
PRESTATURIKO ZERBITZUAK	5.070.875,48 €	58,50%
FUNTS-BILKETA	990.605,92 €	11,43%
DIRU-LAGUNTZA ETA DOHAINTZA PRIBATUAK	2.261.196,97 €	26,09%
KUDEAKETAKO BESTE SARBIDEAK	134.674,28 €	1,55%
FINANTZARIAK	36.886,99 €	0,43%
KAPITAL DIRU-LAGUNTZAK ETA BESTE	173.342,1 €	2,00%
GUZTIRA	8.667.581,74 €	100,00%

FUNTS-BILKETAREN BANAKAPENA		
Urregorri Zozketa	336.428,09 €	33,96%
Bazkideak	640.118,43 €	64,62%
Besteak	14.059,40 €	1,42%
GUZTIRA	990.605,92 €	100,00%

Kalitatea

Gurutze Gorriaren kalitate-kudeaketa, hain zuzen, erakundearen misioa eta ikuskera betetzera bideratuta dago.

VI. Batzar Nagusian zehaztutako estrategia globalekin bat etorri beharrez, gure kalitate-politika gure erabiltzaileen eta gainerako herritarren beharrak, gerorako nahiak eta satisfazioa identifikatzean datza, bai eta etengabe hobetzen jarraitu nahian eta prozesukako ikuspegiaren araberako garapen metodologikoa lantzean. Jakina, etikarekin eta ingurumenare-

kin daukagun konpromisoa betez gure lanean.

Proiektuetan kalitatea txertatzeko, Gurutze Gorriak ISO 9001 ziurtagiriaren arauak betetzen ditu beti.

Kanpotik nahiz barrutik aztertu du Gipuzkoako garraio egokituaren zerbitzua erakunde independente batek -Asociación Española de Normalización y Certificación (AENOR) erakundeak-, eta emaitza ona izan da, bai probintzia mailan bai herriz herri ere:

Esparrua	Eremua	Araua
Mugikortasun gutxi daukatenentzako garraio egokitua	Probintzia eta udalerria	ISO 9001:2000 ER -1727/2008

Eskerrak

Gurutze Gorritik erakunde publiko, enpresa, finantza-entitate eta fundazioen lankidetzak eskertu nahiko genuke, beraien ekarpenei esker proiektu asko aurrera atera ahal izan ditugulako.

Eusko Jaurlaritza | Gipuzkoako Foru Aldundia | Donostiako Udala | Irungo Udala | Hondarribiako Udala | Errenteriako Udala | Lasarteko Udala | Andoaingo Udala | Tolosako Udala | Beasaingo Udala | Urretxuko Udala

| Arrasateko Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Bergarako Udala | Eibarko Udala | Ermuako Udala | Elgoibarko Udala | Debako Udala | Zarauzko Udala | Getariako Udala | Zumarragako Udala | Azkoitiko Udala | Kutxa | Euskadiko Kutxa | La Caixa | Nokia | Enpresa pribatu, partikularrak, dohaintza-emaile eta bazkide laguntzaile guztiei MILA ESKER.



Gizatasuna

Guda-lekuetan zauritu guztiei, inor baztertu gabe, laguntza ematearen kezka sorrarazi duen Gurutze Gorria eta Illagierdi Gorriaren nazioarteko mugimenduak ahaleginak egiten ditu, bai nazioarteko bere alderdian eta bai nazio barrukoan, gizakien sufrimendua aurreikusten eta arintzen, edozein eratako delarik ere sufrimendu horren eragilea. Bizitza eta osasuna babestera jotzen du eta gizakia errespetatzera. Elkar ulertzea, laguntasuna, lankidetzeta eta herrien arteko bake iraunkorra bultzatzen ditu.

Inpartzialtasuna

Naziotasun, erraza,erlijio, egoera sozial edo iritzi politikoaren arabera bereizketarik ez du egiten. Pertsonen, duten sufrimenduaren arabera, laguntza ematera dedikatzen da, premiak estaliz eta larrienei lehentasuna emanez

Neutraltasuna

Denen konfidantza izateko, Mugimenduak ez du gatazketan parte hartzen eta politika, arraza, erlijioa edo ideologia tarteko direla sortzen diren gorabeheretan ez da inola ere sartzen.

Independentzia

Mugimendu independentea da. Agintariei laguntza ematen die beren egiteko humanitarioetan, herrialde bakoitzeko legeriara egokituta. Nazio Erakundeek, halere, beren autonomia izan behar dute, betiere Mugimenduaren pritzipioetan oinarrituta, beren ekimena gauzatu ahal izateko

Boluntariotza

Boluntarioz osatutako sorospen-erakundea da, interes gabeko jarduneko

Batasuna

Herrialde bakoitzean Gurutze Gorriko edo Illagierdi Gorriko Elkarte bakarra egon daiteke, denei irekia izan behar duena eta lurralde osora zabaldu behar duena bere jardun humanitarioa

Unibertsaltasuna

Gurutze Gorria eta Illagierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimendua unibertsala da eta bere baitako erakunde guztiek berak eta elkarri laguntzeko betebeharra dute.